



GERNIKA 1937-87

- GERNIKA-LUMOKO MUSIKAZALE GAZTEAK
(argitaratzaile)
- BONBAKETAREN 50. URTEURRENERAKO
UDAL BATZORDEA (babesle)
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO KULTURA SAILA
(babesle)

TRISKANTZATIK

gernika

ESPERANTZARA

TRISKANTZATIK

ESPERANTZARA

TRISKANTZATIK

ESPERANTZARA



1917-1918ko urteko
1919-1920ko urteko
1921-1922ko urteko
1923-1924ko urteko
1925-1926ko urteko
1927-1928ko urteko
1929-1930ko urteko
1931-1932ko urteko
1933-1934ko urteko
1935-1936ko urteko
1937-1938ko urteko
1939-1940ko urteko
1941-1942ko urteko
1943-1944ko urteko
1945-1946ko urteko
1947-1948ko urteko
1949-1950ko urteko
1951-1952ko urteko
1953-1954ko urteko
1955-1956ko urteko
1957-1958ko urteko
1959-1960ko urteko
1961-1962ko urteko
1963-1964ko urteko
1965-1966ko urteko
1967-1968ko urteko
1969-1970ko urteko
1971-1972ko urteko
1973-1974ko urteko
1975-1976ko urteko
1977-1978ko urteko
1979-1980ko urteko
1981-1982ko urteko
1983-1984ko urteko
1985-1986ko urteko
1987-1988ko urteko
1989-1990ko urteko
1991-1992ko urteko
1993-1994ko urteko
1995-1996ko urteko
1997-1998ko urteko
1999-2000ko urteko
2001-2002ko urteko
2003-2004ko urteko
2005-2006ko urteko
2007-2008ko urteko
2009-2010ko urteko
2011-2012ko urteko
2013-2014ko urteko
2015-2016ko urteko
2017-2018ko urteko
2019-2020ko urteko
2021-2022ko urteko
2023-2024ko urteko
2025-2026ko urteko
2027-2028ko urteko
2029-2030ko urteko

Eusko ulsterak
Gernikaren 100. urteak

AURKIBIDEA

ARBELBIDE XIPRI	GERNIKA-K.....	9
ARRIETA JESUS MARIA	BURDINAZKO HEGALETAN.....	13
ARTZE JOSE ANTONIO	GERNIKA 1987.....	17
AURRE APRAIZ BALENDIN	ZUTUNIK GAGOZ.....	21
	GOIBEL ETA ARDURATSU	
	ERAILKETA ITZELA	
DAVANT JEAN LOUIS	GEURE KANTA.....	29
ENBEITA JON	ASKATASUNAREN BAKE BILA.....	31
ERKIAGA EUSEBIO	BESOAK ZABALIK.....	39
ERZIBENGOA OTAEGI JOXE	GERNIKARI...IRATTTIK.....	43
ESTORNES LASA JOSE	GERNIKARI NAPARTAR GUDARI BATEK	49
ETXAIDE ITHARTE JON	GERNIKA SUTAN.....	55
ETXAMENDI EÑAUT	GERNIKARI 1937-1987.....	63
EZKIAGA LASA PATXI	LOIOLA GUDALOSTEA.....	67
GANDIAGA BITORIANO	AEROPLANO GAIZTOAK.....	71
GARATE GOTZON	GERNIKAKO BIGARREN BONBAKETA ...	79
IRIGOIEN ALFONSO	ZUHAITZEZKO LIBERTATEA.....	81
	UPARRANDIK BILBORA	
	GERNIKA	
IRIGOIEN ARANBERRI J.M.	85
ITURRALDE JOXEMARI	ITXASOA BOST MINUTUTAN IKUSI NUEN	87
LASA JON INAKI	HAURRAK IZUTZEKO SEASKA KANTA ..	91
LEKUONA ANDONI	GERNIKA SUTAN.....	93
MEABE MIREN AGUR	95
MUJIKA LUIS MARIA	OROIMEN GARRATZA.....	97
MUNIATEGI ASTORKIA SABIN	ASTELENDAR OHITURAPEAN.....	103
	GERNIKAKO TRISKANTZA GOGORATUZ	
ONAINDIA SANTIAGO	IL KANPAIAK.....	109
PEILLEN TXOMIN	ZUHAITZEKIN ERE EGITEN DIRA UZTAI	113
	ETA GEZIAK	
UNANUE JOSE MARIA	GAU GORRIA.....	115
URRETABIZKALIA ARANTXA	GERNIKAKOEN HIL OMEN ZEN.....	119

1	1
2	2
3	3
4	4
5	5
6	6
7	7
8	8
9	9
10	10
11	11
12	12
13	13
14	14
15	15
16	16
17	17
18	18
19	19
20	20
21	21
22	22
23	23
24	24
25	25
26	26
27	27
28	28
29	29
30	30
31	31
32	32
33	33
34	34
35	35
36	36
37	37
38	38
39	39
40	40
41	41
42	42
43	43
44	44
45	45
46	46
47	47
48	48
49	49
50	50
51	51
52	52
53	53
54	54
55	55
56	56
57	57
58	58
59	59
60	60
61	61
62	62
63	63
64	64
65	65
66	66
67	67
68	68
69	69
70	70
71	71
72	72
73	73
74	74
75	75
76	76
77	77
78	78
79	79
80	80
81	81
82	82
83	83
84	84
85	85
86	86
87	87
88	88
89	89
90	90
91	91
92	92
93	93
94	94
95	95
96	96
97	97
98	98
99	99
100	100

*Gure agurrik beroena bizi nabi
duen herriari
inolako triskantzarik gabe
esperantza mugagabeari atxekirik
egin dezan amets.*

Gernika, zehazki zehazki ez nahi bi urtezik. Eskola ez digute gure historia irakatsi bainan Amerikara, España eta horrelako tokietaraok.

Gernikako Musikazale Gazteen Elkarteak.

Hainbat gure urteokuk, Nantex Jaietan nintzen, Berzantzen, ikasle. Baitziker etanuma pinatu bano egun zorbait lehenago itan nintzen hainko liburuzegun, "Bayque" izen bilatu eta 36-eko gela ziztatsen zuten bi liburu aurkitu nituen. Horrela jakin nuen Gernikaren berri.

Geroetik ohartu nate beste Gernikarik ere itan dela. Alger-nako gela egin dat. "Gertako Tiesna Bosthurak" liburua bizi aipatzen ditut. Bai TASIERA deitzen da. Nire lagun bat Ighor Tala hartan zen, Kabiliak, Suman ibarretan gauden. Egun batet begazekin akusi zintzen Tawera gauden itanurak ihelki ama-koak bezala, hain arrunera. Bai bezap, bai auzo zen, urgan zuten guria botatzen zituela: hamba, roket eta murrailleza bila. Gero bigarrena, hirugarrena, denak, hain zoren. Berri itortu: Setif-era itanurak ziren hainkoak treskoz berzantzen. Berri hau eta horrela egin erdi batza. Berri zehatu zuten. Larga hainak eskuak Tawerari so zegoen zehente bai, eskatuta zintzen: "Gernika!" Ongi ikusia zuen 1956ko agurik hainkoak zen. Gero jakin zen FLN-ek. Suman ibarretan biltzen tamara ordain egin zuela. Frantsesek uste itan ote zuten toki horretan biltzek zitela FLN-eko buruzgaki? Aitzakidatik larga hainkoak so zeh- dela, soldadok iratetan zirene begazekin gertatu zintzen: "Hainkoetan badituk jende batza ihes egin. Bolatik ez zaituk gelditzen; Begoste nire gain. Nik biltzek." Itan toki- kuzen zintzen.

GERNIKA-K


Gernika xehatu zutelarik ez nuen bi urterik. Eskolan ez digute gure historia irakatsi bainan Ameriketa, Errusia eta horrelako tokietakoak.

Hamasei urte nituelarik, Nantes hirian nintzen, Bretanian, ikasle. Batxiler etsamina pasatu baino egun zombait lehenago izan nintzen hiriko liburutegian, "Basque" fitxa bilatu eta 36-eko gerla aipatzen zuten bi liburu aurkitu nituen. Horrela jakin nuen Gernikaren berri.

Geroztik ohartu naiz beste Gernika-rik ere izan dela. Algeriako gerla egin dut. "Gerlako Tresna Bizidunak" liburuan biga aipatzen ditut. Bat TASIERA deitzen da. Nire lagun bat Ighin Tala herrian zen, Kabilian, Suman ibarreko gainean. Egun batez hegazkinak ikusi zituzten Tassiera gainean inguruka ibilki arranoak bezala, han, urrunera. Bet betan, bat jautsi zen, tripan zituen guziak botatzen zituela: bunba, rocket eta mitrailleusa bala. Gero bigarrena, hirugarrena, denak. Joan ziren. Berriz etorri: Setif-era joanak ziren hiltzeko tresnez betetzera. Berriz hasi eta horrela egun erdi batez. Herria xehatu zuten. Larga bistak eskuan Tassierari so zegoen teniente bati eskapatu zitzaion: "Gernika!" Ongi ikusia zuen. 1956eko agorril hastapena zen. Gero jakin zen FLN-ek. Suman ibarreko biltzar famatua orduan egin zuela. Frantsesek uste izan ote zuten toki horretan bilduak zirela FLN-eko buruzagiak? Aitzindariak larga bistekin so zeudela, soldadoak irratietan ziren; hegazkinen gidariak entzuten zituzten: "Hantxetan badituk jende batzu ihesi joanki. Balarik ez zaitak gelditzen; -Begozte nire gain. Nik baditiat." Eta tirokatzen zituzten.

... (faint text from the reverse page)

... (faint text from the reverse page)



GERNIKA 50 (N. BASTERRETXEA)

... (faint text from the reverse page)

JESUS MARIA ARRIETA

BURDINAZKO HEGALETAN

BURDINAZKO HEGALETAN

Zer dun, Gernika?
Euskaldunontzat
zer dun, Gernika?
Zergatik dardara
erazten dizkidan erraiak,
Gernika?

Santimamiñeko
haitzulo barnetik
Euskal Herriaren
egunsentian
irrintzia, deihadarra
aditzen dinat
hire baitan.

Lurra, Ama Lurra
erditzen ari dun
Euskal Herriaz,
goizeko ihintzetan,
egunsentian,
argiabarren
besoetan,
eguzki amandrearen
begietan.

Ari ditun, horra
distiraka suak,
oihuka adarrak,
mendi gailurretan
deika:

"Bil zaitetze denak
Gernikan!"

Badatozkin, badatozkin
seme-alabak batzartzera,
lege-usadioak
zaintzera.

Hemen ditun
Bizkaiko semeak
arbolaren inguruan.

Har itzan ongi,
babes itzan ezti,
askatasuna nahi dinate
zaindu, oihukatu,
aldarrikatu,
hire arbolaren pean.

Ba garela,
bai, badela
Euskal Herria munduan!
Mendi eta muino artean
eta lautada
zabalean.

Bagarela
baita izango,
euskaldun
izan nahi dugu,
oihan, basoen erdian
baita lur gorri
soilean.

Egin irrintzi,
egin garrasi,
Gernika eta
Euskal Herri.
Lur osora
Iparragirrekin:
hemen garela
eta ez dugula
geure izateaz etsi!

Entzun dinate,
bazekinате
hire oihua,
Gernika maite,
euskaldunen irrintzia,
gure larraren
garrasia.

Ene baina, begira!
Zer ditun haiek?
zer, darioten
orroa?

Non dun euskal
arranoa?
Zerk iluntzen din
zerua?

Etsaiak ditun,
arerioen amorrua.
Burdinazko hegaletan
sua zekarten,
hi kiskaltzeko
gorrotoaren garretan.

Euskal Herria
nahi dinate
hirekin suntsi,
Gernika!
Zuhaitza bota,
herria erre,
behin betirako,
apika.

Ekin diote, hasiak ditun!
 Bonba hiltzaileen
 eztanda!
 Sua eta garra,
 hondamendia,
 sarraskia eta triskantza!
 Haur eta agure,
 gazte eta atso,
 hilotz lurtean
 etzanda.
 Gizasemeak, emakumeak
 negar malkotan
 itaunka:
 Gure Gernikan
 egin duten hau,
 Jauna, baina
 zer izan da?
 Ehundaka urte,
 milaka urte
 iraun dun Euskal
 Herria,
 ez etsi orain,
 begira ezan
 nola dagoen
 lerdin ta sendo
 haritza!
 Euts iezaion,
 biztu erazi
 betiko gure
 hizkuntza.
 Jaiki hadi
 errautsetatik
 eta bizi hadi luza!

Jesus Maria Arrieta

1200, 1332, 1379, 1512,
 1609, 1789, 1794,
 1839, 1879, 1931, 1937...


LXXIII. GERNIKA 1987

*(Bonbek egin ez zutena,
 eta egin ez zezaketena...)*

“Mundura” ireki beharra zegoela eta,
 ireki behar eta,
 euskalduna ere ireki zen “mundura”,
 ireki zen
 modaberriko euskalduna.

Ireki zituen etxeko atea eta leihoak;
 ireki, ordurarte etxekoentzat bakarrik zituen
 gelarik barrukoenak, kutxarik kuttunenak;
 irekierazi zizkion alabari ere izterrak,
 irekitzeko guztiak ireki behar zirela eta,
 ireki, zabal zabalik.

Eta ireki behar baziren, ireki ditu,
 eta zabaldu dituenez gero, hor sartu zaio
 aspaldidanik atalondoan zeukana zai-zai;
 bide erdian gelditu gabe,
 lasai lasai,
 sukalderraino sartu zaio / herioa dariola arerioa,
 eta muinetaraino sartu dio / hezurretan izurri izugarria,
 hezurretan, gezurra ta iruzurra...



GERNIKA 50 (N. BASTERRETXIA)

Etxeko alaba nondik nora dabilen
gaur inork ez daki etxean;

ama bera hor dabil noraezean,
ez daki nola lagundu alabari,
othoitz egiten ahaztu bait zaio gaixoari!

amonak ez du geroztik
sutondoan tokirik,
ez daki eta erdaraz...

Umeenetan ikusten da oraino,
—ez dakigu noiz arteino...!—
baina ez da irrifarririk ageri
gure neskatoen ezpainetan;
noiztik ez da irrintzirik nabari
gure mutikoen eztarrietan!

Ez da gehiago kanturik entzuten
Herri honetan, herritarren onetan,
ez kale eta ez enparantzetan.

Inoiz izan ote
aldi bihurriagorik,
inon izan ote
alde hotan bezalakorik?

Alde batekoen grina
senitartean gorrotoa ereiten;
eta bestekoek ezina,
ez dakite maitasunik emarazten.

Aldi hontan ezin da inor maita
gorrotorik harrotu bage:

ez da gehiago eskurik zabal eskaintzen,
ez bada aurretik ukabila erakusten;
ez da gehiago euskararik mintzatzen,
ez bada beimenik erdararen;
ez da Goikoarentzat gorespenik
biraolarien ahoetan baizik...

“Apaiza eta profeta bera
hor dabilta noraezean batetik bestera”

Gaur ezin da inor maita
gorrotorik harrotu bage;
hemen ezin da bakerik heda
gerra gogorren bidez ez bada...

Eta, nola egin etsaiari gerrarik
etxekoan artean ez denean bakerik?

BALENDIN AURRE APRAIZ

(AURRAITZ)

ZUTUNIK GAGOZ

Gorrotoa sugar.
Gorputz zatituen
oiñazeak oldar.
Aberriaren biotza
zauri-gordindu zan.

Euskalerrriaren
odola mendiak
—beera iturri garden.
Adorea berbiztu zun
gogo bakoitzean.

Amaen negarra
landetaz crosta.
Euskalerra zaarra,
gudari illen ixillean,
goibel geratu zan.

Odola, samiña,
ezpata, kateak...
Gora askatasuna:
Ez gara geratuko, ez,
jaregin artean.

Errauts eta odol
—gane durdux dabil
Erriaren axol.
Gernika! Uri ziperrena!
Zut gagoz gomutan.

Arantza arteko zidor estuz,
urrats tamalak gogamentsu,
poz bagako egunai igesi,
goibel nabil eta arduratsu:
Neure gogoa baizen illun
osertzaren arpeia, egun.
Ez dakigula gautu, arren,
geure elburuen itxaropen.

Laiñoz eta odol-tangadaz
Euskalerraren mintzoa:
Egun latzen anots zoliak
minbera daukaste gogoa.
Aurrera noa bide latzez,
asmu xauen bultzada ixillez,
asaben didarra egurats,
askatasunaren zelairantz.

Bertanbera ezin geinke itxi
geure Erriaren izangoa:
Jaurti nagiok eta aurrera
urratuz etzaien laiñoa.
Ez beitez bidean ostopo
sastraka, arantza ez sustrepo.
Zintzo ta zuur, gogaiai adi,
odolaren bultzada bedi.

Maitekuntzarik ezaz, zuntzi,
gizartearen sena, marrax.
Ondamenen garraxi ixillak
dantzudaz, inguruan, garratz.
Ez beiz gorrotzko erreak
lausotu senideen begiak:
Aditu eziñaren sorbatz
beioa guregandik, arantz.

Berein oiartzunen mintzoa
yatort neure barru ixillera,
egia arrakalatu-zear,
eresi ittun eta minbera:
Poz-aizeak argitu al dai
gure itxaropenaren zelai,
askatasun-bidean daigun
kemena, iraunkor eta lagun.

ERAILKETA ITZÉLA

(Gernika sutan)

Gudateko arratsaldea
izkillu-artean ittun.
Baso odolduak-zear ordu
latzen etorrerak burrun.
Gudoñeko ots eta irrintziak
eriotzen iragarkun.
Uri ta baserri ebillan
nekea, gogoen lagun.

Aberri-bizkar zaurituan
artega askatasun-miña.
Auzka gogorretan, oldartsu,
gaztediaren kemena.
Bake-egarriz lanean, zintzo,
ziardula erri leuna,
edoia-beera, orroeka,
eldu zan amurru illuna.

Erio-zemaia zabaltzen
gudu-oiñetatik asau,
gure etsaien otsein, doixtarrak,
goi-indarrak nai zitun muxtau.
Euzko-gogoa illuntzearren
erriak apurtzea arau:
Gure Erriaren pizkundera
gura eben biurtu gau.

Ilketa ugariago zeiten
etsaiak odol-agarriz,
astelen atsaldea autatu
eban, gaiztakeri ikasiz.
Albo-erritarrak azokan
zirala oitura-neurriz,
egontzi bat eldu zan egoi
—aldetik, taiu ixugarritz.

Ordu neketsuen geznari,
opageia astiz so eben...
Ez egon aldezkairik, nasai
erailketea bete eikeen.
Eriotzez zamauta, berein
ontzik, irunen-irunen,
iru ordu t'erdian burdin
—jasa ez ebien eten.

Uriaren bakea kalez
igesi, zauri ta bildur:
Izuikara biotzen jabe
ebillan erioaren ur.
Lekoreratzen ziranentzat
izkillazkarrak goian zuur:
Zuzen-eske errugeen odola,
zauri gordiñetan, itur.

Aleuni ezarri eutsazan
erpe zitalak gorrotok.
Ez cutsan emon errukirik
zaar, ume, emakume ez geixok.
—Ez eban itxi aratuge
etxe ez bazterrik Erio'k—.

Aiotz gorien menpe igesi
ekusen bizitza orok.

Suzko orduen zalapartadan
zoritxar oro bereber:
Soin apurtuen oiñazeak,
zotinka tatarrez, iltzer.
Neke danen erdian amen
negarren kupida ziper.
Txarkeri oron edena ustu
—arte etzan erioa asper.

Menpetzaileen ezpata ankerrak
zearkatuta biotza,
seme illen oiñetan, gera zan,
aul, Euzkadi'ren biotza.
Bake erailduan negar eta
negar, eldu zan arratsa...
Odol-egarria ase eziñik
urran ebillan arrotza.

Sendi zuzituen auenak
samintsu ebizan, bakar,
galdu-billa gabaren kolko
baltzean, arruak-zear.
Euzkotarron erri gurena
neketzan kiskaltzen, su-gar...
Zut irauan Euzko-gogoak,
inguru oro zoritxar.

Erroma sutuz gero Neron
 -antzera, begikuna aizun,
 menpetzailleen buruzagiak
 opageiari so lizun.
 Jakingeen aurrean erruge
 ager guraz, astalkizun,
 guzurraren zikiña, mundu
 -zear, ezarri nai euskun.


Jainko-izenaz menpetzailleak
 egin-zauri larria ilkor,
 Euzkadi'ren biotzak odol
 dariola dirau, minkor.
 Alde bitako neba-arrebak
 alkartu gaitez, bizkor:
 Ez da biziteko gei bakez
 dirauna, koldar ta ezkor.

Aurre-Apraiç'zar Balendin

Urtarrak 10 ordu
 Aitola buruza
 Dymala kuzera.

Azariak ez onen de
 ortu atze horteak.
 Umazuta egim-giuru
 zinkaldon gureak.

Kakueak etzetik jaurtia
 Non dago lehego Gernika



GERNIKA 50 (N. BASTERRETXEA)

Urtarrak 10 ordu
 Aitola buruza
 Dymala kuzera.

Azariak ez onen de
 ortu atze horteak.
 Umazuta egim-giuru
 zinkaldon gureak.

Kakueak etzetik jaurtia
 Non dago lehego Gernika

GEURE KANTA

Euskara zen
Erdi arrotz
Hemen ere.

Huntzaren kanta
Kantatu behar
Biligarroak.

Baina berea zaukan
Haritzaren itzala
Sustraien izenean.

Arbasoen fruitu
Hor zuen kabia
Gora eraikia.

Ortziak jo zaitu
Arbola burgoia
Populu xumea.

Aitarik ez omen du
ortzi atze horrek,
Umezurtz egin-gaitu
euskaldun guziak.

Kukuak etxetik jaurtia
Non dago lehengo Gernika?



Martiren gomutan
Apal eta zutik
Arbola berri bat
Landatuko dugu,

Esperantzak emana
zernaren habe,
Su guzien aurrean
haize onen ama.

Kabia dukegu
Berriz eraikia
Zu baitan, haritza.

Abar goihenera
Hegalda gaitezen
Geurea kantatuz
Eguzki betean
Gernika, Gernika!

J. L. Davant

ASKATASUNAREN BAKE BILA

Eguzkia
odoletan

ilunaren
lantzaz
zulaturik

noiz
sortaldeak berak
hortzi zain

Zeru leherturik

etsaiaren
burdinazko
espirituak

heriotza
erioela

Ifernua

gar
luze
zorrotza

mendi
ostetik

Haizea

polboraz
zulatua

ningots
garrisika

Martirien
odola

mendian
irakiten

Heriotz kea
ke zapaltzailea
zeru estalgarri

Eta LAPURRA

ATERA

Irten
ziran

azken gudariak
mendian
gora

ke
tarte

su

aitaren
etxea
zaintzera

zutik
bularrak zabalik
ekaitzari

aurpegi
emanik

odola izerdi
bizia opari

banaka
banaka

otsoaren
erpetan

erori
arte

eta

Ama
Lurrak

bere
magalean

chortzi

“DANA EMON BIHAR JAKON
MAITE ZAN ASKATASUNARI”

ARROTZA

egin zan

ETXEKO
JAUBE

Ilunpetako
lapurra
errege

Aitaren

etxea
profanatu

Aitaren

semeak
martiri

Argia
itzali

Egia
gezurtu

Deabrua
Jainkotu

Jainkoa
interesen
mirabe

Herria
herbeste

Giza eskubideak
kondenatu

Jainkoaren izenean
Jainkoa
iltzatu

ARROTZA

egin zan

AITAREN
ETXEKO
JAUBE
Baina

Amagan
ehortztako
gudariak


lurrean
 lur
 landare
 barriz
 ernetzen joiazan
 Mendiko
 odolak
 iturrutik erreka
 errekatik itxaso
 askatasun
 bila
 ibili
 ibili
 Martiren
 espiritua
 lehena
 elkartzen
 oraina
 Astiro
 astiro
 ilunpetik ilunpe
 zigortetik zigorte
 aitaren
 etxea
 berbisten joan
 Martiri berrien
 odola
 zerua
 justizi eske
 gorritzen
 Barriro ere

"DANA EMON BIHAR JAKON
 MAITE ZAN ASKATASUNARI"

Eta oraindik
 Herria
 ez da
 aske

Aitaren etxean
 arrotza da
 nagusi

Baina Euskadik
 EZ DU ETSI
 ez eta etsiko



Mendiko
 odolak
 barriro diraki
 Martiri espirituak
 ots dagi

Abertzaleak
 jagi
 dira

a aitaren

mendian g
 etxera

bularrak
 zabalik
 bizia
 opari

Herri
 osoa
 biztu
 da

Sortaldea
 bizitzaz
 jadanik
 egun
 sentiaren
 zain
 dago

Gaur ere
 "DANA EMON BIHAR JAKO
 MAITE DAN ASKATASUNARI"

euskaldun
gazte

Herriko
olerkari

justizi
gose

askatasun
martiri

Zure
espiritua

atseden
bedi

Lasaitu
zaite

ta
emon
loari

Aitarem etxean
bakean

aintzetan etzanik
Herria zutik da
ta dana


damotso oraindik

MAITE DAUAN ASKTASUNARI

Godinok gurekin gurekin
eta lantza zaharretan
Aitzak gurekin gurekin
Gurekin gurekin gurekin
hate ta nate lantza.

Azken gurekin gurekin
heldu izan gurekin
gurekin gurekin gurekin
gurekin gurekin gurekin
gurekin gurekin gurekin

JON ENBEITA



GERNIKA 30 (N. BASTERRETXEA)